

ZAPATILA GORRI NEKATUAK

Bazen behin Ane izeneko neskatxa bat oso bihurria zena eta beti astakirtenarena egiten zebilena.

Beti zapatila gorriak, galtza bakeroak eta niki txuria janzen zituen. Zapatilak oso nekatuta zeuden Ane ez baitzen geldirik egoten. Gau batean Anek zapatilak armairuan jaso zituen baina kaxoia ixtea ahaztu egin zitzaion.

Orduan zapatilak oporretara joatea erabaki zuten. Asilahra joatea pentsatu zuten. Asilah Afrikan dago. Asilahra iritsi zirenean herria bisitatzen gelditu ziren eta asko gustatu zitzaaien, hondartza, medina, portua... eta hainbeste ibiltzeaz nekatuta, izkina batean geratu ziren siesta egiten.

Bat-batean mutil Afrikan bat etorri zen hankautsik eta zapatilak hartu zituen oso pozik. Zapatilak esnatu ziren eta harriturik gelditu ziren. Ez zuten ezer ulertzen. Mutil afrikarra Ane baino askoz ere bihurriagoa zen, beti kalez kale izozkiak saltzen ibiltzen zen eta lana uzten zuenean futboleant, hondartzako harkaitzetan,... ibiltzen zen.

Egun batean hondartzan zegoela zapatilak kendu eta itsasora joan zen eta zapatilak Anerengana joateko aprobeztatu zuten, mutil afrikarra Ane baino askoz ere bihurriagoa zelako eta naihago zuten Anerekin.

Ane bitartean bere zapatilak bilatzen saiatu zen baina ez zituen aurkitzen. Eta triste jarri eta negarrez hasi zen. Baina halako batean zapatila gorriak bere begien aurrean ikusi zituen eta hortik aurrera zapatila guztiak erabiltzen ikasi zuen eta horrela zapatila gorriak gutxiago nekatzen ziren.

NADIA BOUJEMAA ZABALA (7 URTE)